



DEJA QUE
LOS FOCOS
VUELVAN
A ILUMINAR
TU VIDA

EMAN AUKERA
FOKUEI ZURE
BIZITZA
BERRIRO
ARGITZEKO

VUELVE AL
TEATRO
ITZULI
ANTZOKIRA



RED DE TEATROS
DE NAVARRA
NAFARRAKO
ANTZOKI SAREA

Gobierno de Navarra
Nafarroako
Gobernua



KULTUR JARDUEREN AGENDA

ARANGUREN IBARRA

AZAROA ETA
ABENDUA
2020



ORGANIZAN

Parlamento
del Valle de Aranguren



Area de Cultura
y Turismo

Casa de Cultura
del Valle de Aranguren



Kultur Ekina
ARANGUREN TEATRO

PATROCINAN



Nafarroako
Gobernua

Gobierno de Navarra

Programak: "Artea eta Kultura 2020" - "Udal-Platea Local 2020" - "Butaca a tres"

KONPROMISOA HARTZEN DUGU KULTURAREKIN ZU ERE KONPROMETITZEN AL ZARA?

Kultura Arlotik bertan behera geratu ziren proposamen guztiak eta baita beste sorpresatxoren bat ere eskaintzeko lanean aritu gara. Egoera berri honetan, gure ingurunea gozatzeko, amets egiteko eta hazteko espazio seguru bihurtzeko konpromisoa hartzen dugu. Horretarako behar diren neurri guztiak bermatu ditugu, beraz... orain zu bakarrik falta zara!



ZURETZAKO SEGURUA DEN ESPAZIOA ESKAITZEKO KONPROMISOA DUGU:

- ➔ Eskuak garbitzeko gela sarreran
- ➔ Ibilbide eta segurtasun tarteak markaturik
- ➔ Arautegiaren arabera edukierak
- ➔ Besaulkien patioaren zenbakitze berria, aurretik egokitutako eserlekuekin.
- ➔ Funtzioen arteko desinfekzio eta aireztatzea.

ETA ZUK? HARTUKO DITUZU KONPROMISO HAUEK?

- ➔ Uneoro ezarriko diren arauak errespetatzea
- ➔ Saioek irauten duten bitartean maskara jarrita edukitzea
- ➔ Auditorioan ez jatea edo edatea
- ➔ Puntuala izatea, mugikorrak isilaraztea eta argazki edo grabaketarik ez egitea
- ➔ Burua ireki eta gozatzea
- ➔ Zure ekarpen eta iradokizun guztiak guri helaraztea

SARREREN SALMENTARI BURUZKO BERRIAK

» **Zenbakitutako sarreraren salmenta:** edukiera osasun eta prebentzio gaietan eskumena duten agintariek markatutakoa izango da. Auditorioan sartzen diren pertsona guztiak eserlekua okupatu behar dute (**edukiera kontrolatzeko** kontuan hartzen diren **hautxoak barne**, indarrean dagoen segurtasun araudiaren arabera) eta ezin izango da edukiera hori gairitu. 2/1989 Foru Legea*.

Sarrerak, bere kasuan jardueraren bakoitzean zehaztutako prezioan, horrela erosi ahalko dira:

- » **Aldez aurretik:** jardueraren astean bertan, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 21:00etara, Kultur Etxeko harrera mahaian. **(gehienez 4 sarrera pertsona bakoitzeko)**
- » **Jardueraren egunean:** sarrerak geratzen baldin badira, funtzioen hasiera baino ordu erdi bat lehenago.
- » Aurretik erositako sarreraren itzulketarik ez da onartuko.
- » Jarduera bakoitzean hasiera ordua, adina eta zeineri zuzenduta dagoen zehazten da. Jarduera bakoitzaren ordutegi, data eta adinari erreparatu, mesedez.



OHARRA! IRAILAREN 15ETIK AURRERA GURE ORDUTEGIAK ALDATUKO DITUGU

- » **KULTUR ETXEA 9:00ETATIK 13:00ETARA ETA 14:00ETATIK 21:00ETARA** IREKIKO DU, ASTELEHENETIK OSTIRALERA.
- » **LEIHATILAREN ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK OSTIRALERA, 10:00-13:00 // 17:00-21:00**
- » **LIBURUTEGIKO ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK OSTIRALERA, 9:00-13:00// 14:00-20:00**
- » **GURE ZERBITZUA HOBETZEKO LANEAN ARI GARA.**

- » Ikuskizunetan, auditorioko ateak iragarriak egon beharko dute eta edozein elementutatik libre. Kultur Etxean programatutako ekitaldietan ezin da aulkixoeekin sartu. 2/1989 Foru Legea*.
- » Aranguren Ibarreko Udalak bere egiten du aipatu gomendioak errespetatzen ez dituzten pertsonak ez onartzeko eskubidea.
- » Programazio aldaketak edo gorabeherak: egoerak hala eskatuko balu, Kultur Etxeak iragarritako datak, ordutegiak, programak eta interpretak aldatu ahal izango ditu. Kultur Etxeko kartelegian jakinaraziko da.
- » Kultur Etxeko arduradunek arau hauek beteazazteko baimena dute.
- » *2/1989 Foru Legea, martxoaren 13koa, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzen dituenak.

PROGRAMATUTAKO JARDUERA ETA IKUSKIZUNEI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO JASO NAHI BADUZU, DEITU TELEFONO HONETARA: 948 29 14 89

Casa de Cultura del Valle de Aranguren  Kultur Etxea Aranguren Ibarra

Eguzki Plaza - 31192 Mutiloa (Nafarroa) - Tel. (leihatila): 948 29 14 89

E-posta: cultura@aranguren.es

Jarrai gaitzazu Facebooken: [@casadeculturaarangurenkulturetxea](https://www.facebook.com/casadeculturaarangurenkulturetxea)

AGENDA

KULTUR JARDUERAK

GAZTE ETA HELDUAK

Azaroak 1, igandea, 19:00

"Calma"

Guillem Alba taldearena

Azaroak 13, ostirala, 20:00

Bertso Saioa

Azaroak 15, igandea, 19:00

"Poyo Rojo"

Poyo Rojoren eskutik

Azaroak 29, igandea, 19:00

"Maestrissimo (Pagagnini 2)"

Yllanarena

Azaroak 20, igandea, 19:00

"Brujas"

Lolita Corina taldearena

ERAKUSKETAK

Azaroak 4tik 20ra

"Aranguren Ibarrean elkar zaintzen dugu"

Azaroak 23tik abenduaren 11ra

"Plstkk! Arazo bat dugu"

Azaroak 14tik abenduaren 20ra

"Beldurrez hazi"

IPUINKONTALARIAK

INGLESEZ

Azaroak 4 (Hannah Berry)

EUSKARAZ

Azaroak 11 (Birjiñe Alvira)

GAZTELANIAZ

Azaroak 18 (Ventura Ruiz).

Berdintasun Arloko saio berezia

INGLESEZ

25 Noviembre (Hannah Berry)

FAMILIAN

Azaroak 8, Igandea 17:00etan (eusk) -

18:30etan (gazt)

"Etixerik txikiena"

Yarleku antzerki taldearena (Fetén saria)

Azaroak 22, igandea, 12:00etan (gazt) -
18:00etan (eusk)

"Ezinezkoaren logika"

Odei Magoarena

Azaroak 28, larunbata, 18:00etan

"Las emprendedoras"

Pituisterrena

Abenduak 13, igandea, 18:00etan

"Cuentos de un cien pies"

Pasadas las 4rena

ZINEFORUMA

Azaroak 6, 20:00etan

"Dolor y gloria"

(Pedro Almodovar)

Azaroak 20, 19:00etan

(berdintasun arloko saio berezia)

"Princesa"

(Han Gong-Ju)

Azaroak 27, 20:00etan

"La favorita"

(Yorgos Lanthimos)

Abenduak 11, 20:00etan

"Mientras dure la guerra"

(Alejandro Amenabar)

Abenduak 18, 20:00etan

"La Odisea de los Giles"

(Sebastián Borensztein)

ANTZERKIA



"Calma!" Guillem Albàrena

"Presaren kontrako errezeta. Komedia eta poetikaren tartean dagoen solo bat. Ikuskizun totala"

Antzezlea: **Guillem Albà**

Guillem Albàk, berak bakarrik eta presik gabe, egunerokoan hain ohikoa den eta aldi berean hain konplexua den gertaera bati buruz hitz egingo digu: presari buruz. "Denbora guztian korrika eginez" bizi gara. "Calma!" Guillem Albà purua da. Haren clown basatia presente dago, haren poetika ez da falta, eta haren mezu baikor eta bizia katartiko bihurtzen da azkenean.

www.guillemalba.com

▷ Azaroak 1, igandea
19:00etan

▷ GAZTE ETA
HELDUENTZAKO
JARDUERA

▷ SARRERA: 6€

↪ Iraupena: 60 minutu



ERAKUSKETA

I Argazki Lehiaketa "En el Valle de Aranguren nos cuidamos"

Lehiaketan aurkeztutako argazkien sailkapena ikusi ahalko dugu azaroaren 4tik 18ra bitartean. Berdintasun Arloak Kultur Etxean prestatutako erakusketa da. Ez ezazu galdu! Aranguren Ibarreko Berdintasun Arloak antolatutakoa.

▷ Azaroak 4tik 18ra

▷ 10:00/13:00 eta
17:00/21:00

◉ KULTUR ETXKO
ERAKUSKETA ARETOAN



HAUR ETA FAMILIENTZAKO ANTZERKIA



“Etixerik txikiena” Yarleku antzerki taldea

Emakumezkoen interpretazio onenarendako FETEN 2019 saria Eva Azpilikueta

Antzezleak: **Laura Villanueva Arteaga eta Eva Azpilikueta**

Haur errefuxiatuek bizi duten egoera latza jorratzen da antzezlanean, beren sorlekutik ezinbestean ateratzen baitira nora joanen diren jakin gabe. Aspaldi esana da gizakia etxean bizi dela segurtasunez eta bakean. Beraz, zein da horretarako unitate minimoa? Beharbada, baliteke besarkada bat izatea etxerik txikiena...

▷ Azaroak 8, igandea 17:00etan (euskarazko bertsioa)

▷ 18:30ean (gaztelaniazko bertsioa)

▷ JENDE GUZTIA-RENTZAKO JARDUERA (6 URTETIK GORA GOMENDATUA)

▷ SARRERA: 3 €

👉 Iraupena: 50 minutu

BERTSO SAIO TEMATIKOA EUSKARALDIARI BURUZKOA

2 bertsolarik gai jartzaile batek lagunduta 60 minutuz beren hizkuntzaren bizipenak bertsotan kontatuko dizkigute.

▷ Azaroak 13, ostirala. 20:00etan

▷ GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA

▷ SARRERA: 6€

👉 Iraupena: 60 minutu

KOMEDIA

“Un poyo Rojo” Un poyo Rojo-rena

“Bikainak, itzelak, sinesgaitzak, paregabeak, zirrargarriak, errepikaezinak: bestialak dira”

Antzezleak: **Luciano Rosso eta Nicolás Poggi**



Aktore-dantzari-atleta argentinar bikain hauek egungo antzerki-eszenako obra berezi eta interesgarrienetako bat antzezten dute. Frantziako Avignongo Zinemaldiko programatzaileak izan dira bi urtez jarraian. Eraitza zirrargarria da. Ezinbesteko hitzordua antzerkiarekin eta dantzarekin zerikusia duten pertsonentzat, edo, besterik gabe, ikuskizun original eta dibertigarri batera joan nahi dutenentzat.

▷ Azaroak 15, igandea 19:00etan

▷ GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDURA

▷ SARRERA: 6€

👉 Iraupena: 45 minutu




MAGIA → FAMILIAN

“Ezinezkoaren logika” Odei Magoarena

“Arau bakarra dago: ezinezkorik ez dagoela hain zuzen ere”

Ilusionista: **Odei Domingo**

Errejidorea eta eszena laguntzailea: **Leire Tejero**



Ausartzen zara posible denaren eta ezinezkoa denaren arteko muga non dagoen jakitera? Hodeik bere ikuskizun berria aurkezten digu, denok ezagutzen dugun magia klasikoa eta sortzen ari den magia modernoa uztartzen dituen. Ezinezko ihesak, zatika ebakitzen diren gorputz-atalak, asmakizun imajinaezinak eta jende guztiak parte hartu eta sentituko duen magia, erritmoa eta umorea.

▷ Azaroak 22, igandea 12:00etan (gaztelaniaz)

▷ 18:00etan (euskaraz)

▷ IKUSLE GUZTIENTZAT JARDUERA (AHOLKATUTAKO ADINA, 5 URTETIK GORA)

▷ SARRERA: 3 €

👉 Iraupena: 80 minutu

"PLSTKS! ARAZO BAT DUGU"

Imajinatzen al duzu egun batean etxera iritsi eta dena zaborrez beteta aurkitzen duzula? Hori da, zoritxarrez, gure natura-inguruneetan gertatzen dena. Etor zaitez erakusketa berezi honetara eta ikusi bertatik bertara daukagun arazo larri hau. Kontzientzia hartuko dugu, eta, batez ere, hondakinak gutxitzen eta sortutakoak ondo bereizten ikasiko dugu.

Zatoz erakusketa ikustera, eta utzi postontzian naturan plastikoaren arazoa konpontzeko zure ideia; marrazki bat, lema bat, ipuin bat, esaldi bat... izan daiteke, eta jasotako guztien artean liburuak zozketatuko ditugu.

▷ 23 de Noviembre, a 11 de Diciembre


▷ De 10 a 13 y de 17 a 21 h. de lunes a viernes

▷ KULTUR ETXEO ERAKUSKETA ARETOAN

ANTOLATZAILEA: Naturgunea
LAGUNTZAILEA: Iruñerriko Mankomunitatea

ANTZERKIA → FAMILIAN**"Las emprendedoras" Pituisterrena**

"Ondo pasarazteaz gain, pentsarazi egingo dien ikuskizuna"



Ezer egiten ez duten eta aspertzen diren bi pailazok, beren gaitasun intelektual eta artistikoen azterketa egin ondoren, negozio bat sortzea erabaki dute. Lehen enkargua jaso dute... "Arazoak ditu uraren mailarekin, bero biziarekin, hotz izugarriarekin, jatorri ezezaguneko substantzia grisekin eta likatsuekin... Hainbat puntutan ere marruskadurak eta bibrazio txarrak daude. Agian olio falta? Konponduko ote dute? Edo enpresa itxi beharko dute?

▷ Azaroak 28, larunbata 18:00etan

▷ GOMENDATUTAKO ADINA, 5 URTETIK AURRERA

▷ SARRERA: 3€

↳ Iraupena: 60 minutu

ANTOLATZAILEA: Naturgunea

KEINU ANTZERKIA**Maestrissimo (Pagagnini 2) Yllanarena**

"Pagagnini gustatu bazitzaizun, ez izan zalantzarik!"



"Pagagnini"-ren ildo beretik, baina berezko indar batekin, "Maestrissimo"-k estetika zaindu eta pertsonaia dibertigarri gozaraziko ditu ikusleak, eta etikak, sorkuntzak, originaltasunak eta arteek gizartean duten balioa bezalako gaiak landuko ditu. "Maestrissimo" «allegro e molto vivace» ikuskizuna da, kamera-kontzertuaren, komedia satirikoaren eta garaiko erretratuaren artekoa, non, Yllana estiloan, hari-laukote baten abenturak eta desbenturak erakusten baitira.

▷ Azaroak 29, igandea 19:00etan

▷ GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERA

▷ SARRERA: 6€

↳ Iraupena: 90 minutu

**ANTZERKIA ETA MUSIKA → FAMILIAN****"Cuentos de un ciempiés: Unos van de canto, otros del reves" Pasadas las 4-rena**

Antzezleak: Belén Otxotorena, Inma Gurrea, Edurne Arizu, Rubén Velasco eta Txus Eguílaz
Moldatzailea: Gorka Pastor



Neguaire eta hotzaren erdian, Luisa eta Marisa basora joan dira. Han, opari-kaxa erraldoi bat aurkitu dute eta, jabea agertzen ez denez, maileguan hartzea erabaki dute, denbora baterako bakarrik! Kaxaren barruan... karta bat! eta galtzerdi mordoa, Tramontana Rosanak, uste handiak dituen haizeak, bere lagun ehunzangoari oparitu nahi dizkionak. Galtzerdiak ateratzean, konturatzen dira batzuetatik istorio magikoak ateratzen direla eta beste batzuetatik, melodiak. Ze dibertigarria!

▷ Abenduak 13, igandea 18:00etan

▷ IKUSLE GUZTIENTZAKO JARDUERA (aholkatutako adina, 3 urtetik aurrera)

▷ SARRERA: 3€

↳ Iraupena: 60 minutu

ERAKUSKETA IBILTARIA NAFARROAKO HAINBAT UDALERRITATIK

“Creer con miedo: Niños y niñas ante la violencia de género”



Aranguren Ibarreko Berdintasun Arloak antolatutarik

Emakumeen aurkako Tratu Txarrak Ikertzeko Batzordeak hainbat marrazki aurkeztu ditu. Adingabeekin Esku-hartzeko Eredu Psikosozialaren Eredua aplikatzeko saioetan entitate honek artatutako haurrek egindako marrazkiak dira. Marrazki horiek ezagutzera eman nahi ditugu, beren adierazpen-ingaragarriagatik, argi eta garbi erakusten baitute biktimen seme-alabentzako indarkeriako testuinguru batean bizitzeak edota indarkeria hori lehen pertsona sufritzeak zer ondorio dakartzkien.

► **Abenduak 14tik**
20ra 10:00/13:00
eta 17:00/21:00
Astelehenetik ostiralera

► **KULTUR ETXEO**
ERAKUSKETA ARETOAN

ANTZERKIA

“Brujas” Taldea: Lolita Corina

“Sorginen ordua da ... ireki zure zentzumenak eta utzi zure irudimena dantzan”

Antzezleak: **Lola González eta Coral Ros**

Zuzendaritza: **Álex Navarro**

Zuzendaritza-laguntzailea: **Caroline Dream**

Egilea: **Compañía Lolita Corina eta Álex Navarro**



Istripuzko heriotza bat, sorgin baten kontsulta, margolan bat... Zenbaitetan, bultzada txiki bat bakarrik behar izaten da botere ezkutatuak agertzeko. Lula Sorgina, sorgin begitaziodunetan, begitaziodunena da eta Dorari erakutsiko dio naturaz gaindiko munduan barneratzen. Dora alargun atsekabetuena da atsekabetueneren artean. Dena den, deus ere ez da dirudiena... Zenbaitetan, gutxien espero duzun tokietan baitaude sorginak. Sorginen ordua da... ez izan beldurrik, ez dizu minik eginen. Sorginen ordua da... ez duzu sekulan ahaztuko.


► **Abenduak 20,**
igandea 19:00etan.

► **GAZTE ETA HELDUEN-**
TZAKO JARDUERA


► **SARRERA: 6 €**

► **Iraupena: 55 minutu**


IPUIN-KONTALARIAK



Azaroak 4 eta
Azaroak 25
(inglesez)
Hannah Berry
18:00etan
Auditorioa



Azaroak 11
(euskaraz)
Birjine Alvira
18:00etan
Auditorioa



Azaroak 18
(Gaztelaniaz)
Ventura Ruiz
Berdintasun Arloko
saio berezia
18:00etan Auditorioa



ZINEFORUMA



“Dolor y gloria” (Pedro Almodóvar)

Azaroak 6, 20:00 / Blanca Oriak moderatua

Salvador Mallo gainbeheran dagoen zinema-zuzendariak 60ko hamarkadan Valentziako Paterna herrian haurtzarotik izan duen bizitza ibilbidea eta ibilbide profesionala gogoratzen du. Salvadorrek oroitzapen biziak ditu bere lehen maitasunez, lehen desioaz, 80ko hamarkadako Madrilgo lehen maitasun helduaz eta zinemarekiko interes goiztiarraz.
Iraupena: 108 minutu / Sarrera: 2,5 €



“Princesa” (Han Gong-Ju)

Azaroak 20, 19:00 (berdintasun arloko saio berezia)

Moderatzailea: María Castejón

Han Gong-ju ikasle gazteak familia eta ingurua utzi behar izan ditu, mundu guztiak egotzi dion gertakari baten ondorioz. Beste herri batera joan beharrean aurkitzen da bere irakasleetako baten amaren babespean. Errutina berrietara ohitu eta lagun berriak egin arren, haren iraganak beti atsekabetzen du. Lee Su-jin zinemagile korearraren film saritua ikusteko aukera paregabea.
Iraupena: 112 minutu / Sarrera: 2,5 €



“La favorita” (Yorgos Lanthimos)

Azaroak 27, 20:00 / Blanca Oriak moderatua

XVIII. mendearen hasieran, Ingalaterra Frantziarekin gerran dago eta Anne erregina erikorrak Lady Sarah lagunaren esku utzi ditu bere erantzukizunak. Abigail izeneko talentu bereziko zerbitzari bat iritsi da, eta arriskuan jarri du Sarahren posizioa.

Iraupena: 121 minutu / Sarrera: 2,5 €



“Mientras dure la guerra” (Alejandro Amenábar)

Abenduak 11, 20:00 /

Blanca Oriak moderatua

Espainia, 1936. Miguel de Unamuno idazle ospetsuak altxamendu militarra publikoki babestea erabaki du. Berehala, Salamancako Unibertsitateko errektore kargutik kendu zuen gobernu errepublikarrak. Bien bitartean, Franco jeneralak bere tropak fronte matxinatuan batzea lortu du eta kanpaina arrakastatsu bati ekin dio.

Iraupena: 103 minutu / Sarrera: 2,5 €



“La Odisea de los Giles”

(Sebastián Borensztein)

Abenduak 18, 20:00 / Blanca Oriak moderatua

Buenos Aires probintzia, 2001eko bukaera. Lagun eta bizilagun talde batek galdu egin du nekazari-kooperatiba zahar bat berpizteko bildutako dirua. Handik gutxira jakin dute herrialde hartan zer gertatuko zen aurretik zekiten abokatu bihozgabe batek eta banku-kudeatzaile batek egindako iruzur batengatik galdu direla beren aurrezkiak. Gertatutakoaz jabetuta, auzotar-talde honek dagokiena berreskuratzeko plan zorrotza antolatzea erabaki du.

Iraupena: 106 minutu / Sarrera: 2,5 €